

SGAE Fundazioak, ikus-entzunezko arloan dagoen eduki-eskaera gero eta handiagoa ikusita, ezinbestekotzat jotzen du sustapen-esparru bat sortzea sektore horretako egileen sorkuntzen kalitatea sustatzeko. Horregatik, sari honetarako deialdia egiten du:

sgae -ren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026

Sariari izen hori eman zaio gidoilari eta antzerkigile espainiar ospetsuaren omenez, bere lanak zinema iberoamerikarrean eragin handia izan baitzuen.

OINARRIAK

- 01** **Lehiaketara aurkeztu ahalko dira SGAEko kide diren egile guztiak**, afiliazioa eskusibitatean dutenak, edozein nazionalitatekoak izanik ere. Egile bat baino gehiagoren lankidetzatik sortutako gidoia bada, parte hartu duten egile guztiek SGAEko kideak izan beharko dute, salbuespenik gabe. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira SGAEren Zuzendaritza Batzordeko eta SGAE Fundazioaren Patronatuko kideak, baita lehiaketa honen aurreko hiru edizioetan saritutako egileak ere. Aurkeztu ahalko dira, era berean, eskaera egiteko orduan SGAE alta prozesua izapidetzen ari diren autoreak. Kasu horretan, hautatua izaterako, ezinbestekoa izango da SGAEko bazkide izaera edukitzea beranduenez 2026ko urtarrilaren 1ean. Egile bat baino gehiago diren kasuan, egilekide guztiek izan beharko dute SGAEko bazkideak 2026ko urtarrilaren 1ean. SGAE Fundazioak egiaztatuko du SGAErekin alta eginda ote dagoen egun horretarako.
- 02** Aurkeztutako gidoiak Espainiako Estatuko edozein hizkuntza ofizialetan idatzi ahalko dira eta guztiz jatorrizkoak, argitaragabeak eta fikziozko film luzerako idatziak izan beharko dute. Ez da onartuko egilearen beraren nahiz beste egileen lanen moldaketarik. Aurkeztutako lanak aurrez filmatu gabea izan beharko du eta ezingo du filmatzeko konpromisorik izan inongo ikus-entzunezko enpresarekin, lehiaketara aurkeztu den unetik epaimahaiak erabakia hartu arte. Era berean, lehiaketatik baztertu egingo dira SGAEren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria aurkeztu aurretik sariren bat jaso duten gidoiak, bai eta lehiaketa horretara aurkeztu eta erabakia hartu bitartean saritutakoak ere.

03 Ez da onartuko laburpenik, ez tratamendurik, ez gidoi amaitu gaberik. Jatorrizkoak lanbide zinematografikoan erabiltzen diren ohiko formatuetako batean aurkeztu beharko dira. Horrez gain, Espainian eta Iberoamerikan ohikoak diren filmazioetara egokitutako metrajea izan beharko dute. Horretarako, komeni da testua behar bezalakoa baldintzetan aurkeztea, hau da, irakurgarritasuna eta gutxi gorabeherako iraupena bermatzeko moduan egotea (Courier 12 letra edo antzekoa, ezkerretara lerrokatuta, lerroarte bikoitzarekin, PDF formatuan, sekuentziazio egokiarekin...); profesionalki aurkezpen onargarria ez duten lanak deialditik kanpora gera daitezke epaimahaiak hala irizten badu.

04 Lehiakideak posta elektronikoz aurkeztuko dira lehiaketara, eta mezuak obraren eta agiriaren fitxategiak atxikien dituela. Egileen anonimitasuna gordetzeko, soilik izenburua agertuko du obraren testuaren fitxategiak, eta lelo gisa jokatu du kasu honetan. Horrez gain, testuan inon ez da agertuko egilearen edo egileen identitatearen gaineko erreferentziarik.

Lehiaketako agiria honako fitxategi hauek osatuko dute (PDF formatuan):

- **Lehiaketara aurkeztutako testuaren fitxategia, egilea identifika dezakeen ezaugarririk gabe.** Lehiaketara aurkeztu den lana gaztelania ez den Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako batean badago, egileak edo egileek gaztelaniazko itzulpena aurkeztu dezakete, lanaren jatorrizko hizkuntza ezagutzen ez duten epaimahaikideek erabil dezaten. Egileak edo egileek gaztelaniazko itzulpenik aurkezten ez badute, SGAE Fundazioak itzulpena egiteko baimena izango du, epaimahaikideek lan-tresna bezala erabil dezaten. Itzulpenok suntsitu egingo dira sariaren epaia eman eta gero.

- **Plika eran jokatzen duen fitxategia, honako izen honekin: «Plika – [obraren izenburua]», zeinetan digitalizatuta agertu beharko duten honako agiri hauek:** gidioia Jabetza Intelektualaren Erregistroan erregistratu izanaren ziurtagiria (behin-behinekoa edo behin betikoa); lehiakidearen edo lehiakideen NANaren edo pasaportearen fotokopia; oinarri hauei erantsita dagoen izen-emateko fitxa, atal guztiak beteta; lehiakidearen edo lehiakideen curriculum vitae laburra. SGAEko bazkide izateko alta prozesuan ari direnek, era berean, alta eskaeraren agiria aurkeztu beharko dute.

Aipatutako agiriren bat aurkeztu ezean, lehiakidea kanporatua izango da.

05 Agiri guztiak helbide elektroniko honetara igorri behar dira: iarmada@fundacionsgae.org, 2025eko urriaren 21etik azaroaren 30era (biak barne), honako esaldi hau ipinita mezuaren gaian: «SGAEren Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria – Lehiaketarako obra».

06 Sariaren epaimahaia (SGAE Fundazioak izendatuko du) **zinema arloko egile eta profesionalen osatuko dute.** SGAE Fundazioak ahalegina egingo du, ahal den neurrian, epaimahaiko kideen artean Espainiako Estatuan gaztelania ez diren hizkuntza ofizialak hitz egiten dituzten profesionalak egon daitezten. Epaimahaiak hiru finalista aukeratu ditu eta 2026ko otsailaren amaieran iragarriko dira. Sariaren epaimahaiaren behin betiko erabakia jendaurreko ekitaldi batean jakinaraziko dute, 2026ko lehen hiruhilekoa amaitu baino lehen.

07 Saria ezingo da eman gabe geratu, eta epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da. Epaimahaiko kideen boto berdinketa balego, lehendakariak kalitateko botoa erabili ahalko luke.

08 Lehiaketa honek sari bakarra du: **hogeita hamar mila euro (30.000 €).** Obra irabazleak egile bat baino gehiago baditu, kopurua hainbanatu egingo da egilekideen artean. Era berean, bi finalistek izendapen horregatik **bost mila euro jasoko dute (5.000 €).** Zenbateko horiek indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen zergen menpe egongo dira.

09 Saritutako egileak edo egileek hitzematzen dute saria esleitu ondotik sinatuko dituzten lagatze-kontratuetan esplizituki honako hauek zehaztuko direla: egin beharreko film luzearen kopietan, bai euskarri zinematografikoan, bai bideoerakikoan, bai beste edozein euskarritan edo promoziorako materialetan **«SGAEren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026»** aipamena eta SGAE Fundazioaren logotipoa.

- 10 Saritutako testua jakinarazi ondoren, finalista moduan hautatuak izan ez diren lanak suntsitu egingo dira. Ez da inolako mezu-trukerik izango horien gainean.
- 11 Parte-hartzaileek, lehiaketan parte hartzen duten heinean, oinarri hauek osorik onartzen dituzte, baita epaimahaiaren erabakiak ere.
- 12 Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta haietakoren batek plagiorik edota indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balu.
- 13 Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, bai parte-hartzaileak, bai antolakuntza Madrilgo hiriburuko auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.

MATERIAL BIDALKETAK

iarmada@fundacionsgae.org

INFORMAZIOA

Interesdunek kontsultak egin eta oinarri hauei buruzko informazio gehiago jaso dezakete helbide hauetan:

informacion@fundacionsgae.org

iarmada@fundacionsgae.org

Tel. 91 503 68 00

www.fundacionsgae.org

www.sgae.es



fundación  sgae fundazioa



sgae -ren Film Luzerako
Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026

IZENA EMATEKO FITXA

Izena/Izenak

Abizenak

Bazkidearen/Bazkideen zk.

Izenburua

Helbidea

Posta kodea

Herria

Probintzia/Herraldea

Telefonoa/Telefonoak

Helbide elektronikoa

SGAEren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026 sariketan izena emateko eskaera aurkeztzen duenak/dutenek.

HAUXE ADIERAZTEN DU/DUTE:

1. Bere/beren borondatez aurkeztzen duela/dituztela eskaera/k SGAEren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026 sariketan parte hartzeko.
2. Deialdiaren oinarriak irakurri dituela/dituztela eta onartzen duela/dutela haietan datorrena. Horrekin batera, curriculum vitae eta nortasun agiria aurkeztzen dituztela.
3. Badakiela/Badakitela SGAEren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026 sariketan parte hartuta SGAE Fundazioak tratatuko dituela datu pertsonalak administrazio-izapide guztiak egiteko, lehiaketan parte hartzeko eta epaimahaikoek irabazlea eta finalistak hautatzeko.

Hori guztia dela eta, **BERARIAZ BAIMENTZEN DU/DUTE:**

SGAE FUNDAZIOAK idazki honetan eta curriculum vitaean datozen datu pertsonalak tratatzea zertarako eta SGAEren Film Luzerako Gidoien XXIII. Julio Alejandro Saria 2026 sariketan parte hartzeko, administrazio izaera duten kudeaketa guztiak egiteko eta epaimahaikoek irabazlea eta finalistak hautatzeko.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta xedapen osagarriek xedatutakoa betez, badakiela/badakitela **SGAE FUNDAZIOAK** dituen datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak dituela/dituztela, eta baita datuen eramangarritasun-eskubidea eta datuak erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Horretarako, SGAE Fundazioaren Zerbitzu juridikoetara idatzi beharko dute, erakundearen helbidera: Bárbara de Braganza 7, 28004, Madrid (Espainia). Idazki horretan, izen-abizenak, NANA, helbidea, gauzatu nahi duen/duten eskubidea eta horretarako zergatia adierazi beharko dira.

Eskatzailearen/eskatzaileen sinadura:

.....jn./and.jn./and.